

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Iruñeko Udalarekin eta NUPekin lankidetzakordioa sinatzea onartu da

Akordioaren helburua da campuseko lursailak berrantolatzea

Asteazkena, 2019.eko otsailak 20

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran hartutako akordioaren bidez, Iruñeko Udalarekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin hirigintza-lankidetzako administrazioen arteko hitzarmena sinatzea onartu da, unibertsitate-zentro horretako campuseko lursailak berrantolatzearren.

Hitzarmenak bi helburu ditu: alde batetik, hiriaren eta NUPen eremuaren artean behar bezalako mugak ezartzea, eta, bestetik, erdiguneko eremuko hiri-lurzoruak eskuratzea erraztea, oraindik ere eskuratu ez direnak.

Zehazki, honako hauek dira: UEPSeko C-2, C-3 unitateak eta C-1-en U-1-baten zati bat eta Iruñeko Udal Planeko UI XIXko SO-1-en zati bat.

Gogoratu behar da Nafarroako Gobernuak 1989. urtean onartu zuela Udalez gaindiko Eragina duen Plan Sektoriala (UEPS) NUP ezartzeko, 238.189 m²-ko jarduera-azalerarekin.

Beranduago, 1990ean, Foru Exekutiboak campusaren UEPS onartu zuen, etorkizuneko garapen-premietarako behar adinako lurzoru-erreserbarekin.